

**Bilbon, 1998ko otsailaren 27an**

J. Haritschelhar, euskaltzainburua  
 H. Knörr, buruordea,  
 P. Goenaga, idazkaria,  
 J. A. Arana, diruzaina,  
 M. Azkarate,  
 P. Charritton,  
 J. L. Davant,  
 X. Diharce,  
 X. Kintana,  
 F. Krutwig,  
 E. Larre,  
 J. M. Lekuona,  
 B. Oihartzabal,  
 P. Ondarra,  
 Tx. Peillen,  
 P. Salaburu,  
 J. San Martin,  
 I. Sarasola,  
 J. M. Satrustegi  
 A. Urrutia  
 eta L. Villasante euskaltzainak  
 eta J. L. Lizundia,  
 idazkariorde-kudeatzailea  
 eta J. J. Zearreta, ekonomia eragilea.

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 1998ko otsailaren 27an, goizeko hamarretan, eman zaio hasiera Euskaltzaindiaren hileroko batzarrari. Bildu diren euskaltzainen izenak ezkerreko zutabeen jasoak dira. Ezin etorria adierazi du P. Altuna jaunak.

*Euskaltzainburuaren hasierako hitzak*

Euskaltzainburuaren hasierako hitzak zorianak emateko izan dira J. A. Arana eta Txomin Peillen euskaltzainei eta baita Karmele Esnal euskaltzain urgazleari, Euskal Idazleen Elkarteak ohorezko kide izendatu berri dituelako.

Bestalde, euskaltzain batzuk oraindik ere iritsi gabe daudenez, euskaltzainburuak batzar gaien hurrenkera aldatzea proposatzen du. Horrela, arauen eztabaidan sartu aurretik eskuartekoei ekin diete euskaltzainek.

*3. Eskuartekoak**3.1. Ohorezko euskaltzainen izendapenaz*

Gai hau euskaltzainburuak aurreko bileran aurreratu bazuen ere, epeak zehazten dira. Martxoko bilkura arte luzatzen da hautagaiak aurkezteko epea. Izendapenak, berriz, apirileko bilkuran. Bi euskaltzainek aurkeztuko dute, izkribuz, hautagai bakoitza, edo zuzendaritzak. Beti ere, curriculum vitae erantsiz.

*3.2. Iparraldeko ordezkariaren kokagune berria*

Baionan ordezkariak kokagune berria du hemendik aurrera, Thiers kaleko 18an hain zuzen. Hau dela eta, J. L. Lizundiak egutegi aldaketaren berri eman du: maiatzeko bilera Baionan izango da eta uztailakoa, berriz, gramatika jardunaldien inguruan, Areatzan.

*3.3. Nafarroako toponimia eta mapagintzaren CD-ROM-aren berriraketa*

H. Knörrrek azaldu du Nafarroako Gobernutik eskuratutako CD-ROM-a (Nafarroa: toponimia eta mapagintza) berriratzeko asmoa, beti ere erabilera errazteko asmoz. Informazio kopurua biziki handia bada ere, berregokitze hau prezio berezian egingo omen litzaioke Euskaltzaindiari. Hala ere, 1.500.000 pezetako kostua izango lukeenez, Euskaltzainen oniritzia behar du aurrekontu honek.

Charritton jauna poztu da asmo honengatik, baina galdetzen du ea beste hiru probintzietan horrelakorik espero ote daitekeen. Beste lurraldeetan honen antzeko ezer ez dela egin erantzun zaio.

Nolanahi ere, aurkeztutako aurrekontuaren mugen barruan ibiliko garela ziurtatze-ko, hitzarmen bat sinatuko dela esan da, gauzak behar bezala lotzeko eta azken momentuan ezustekorik gerta ez dadin.

Euskaltzainek ontzat eman dute plana eta aurrekontua.

### 3.4. *Jagon Sailean aldaketak*

X. Mendiguren Euskararen Unibertsoaren Kontseiluko idazkari izendatu dutenez, Jagon Saileko idazkaritza Jose Ramon Zubimendi jaunak hartzea proposatu du Jagon Sailak otsaileko 13ko bileran.

Proposamena onartu da.

## 4. *Azken ordukoak*

### 4.1. *Euskararen ofizialtasunaren aldeko Deiadar mugimenduaren eskaria*

Jagon Sailaren bitartez iritsi zaio Iparraldetik Euskaltzaindiari Deiadar-en ekime-naren berri. Euskaltzaindiaren atxikimendua eskatzen dute. Euskaltzainburuaren ustez, Euskaltzaindiak atxikimendu hori erakutsi behar luke. Charritton jaunaren ustez, aldiz, ez. Euskaltzaindiak bere bidea egin behar omen du eta ez, bestek markatutakoari jarraitu.

Ondoren X. Kintanak hartu du hitza. Haren ustez, Hegoaldetik begiratuta, Iparraldeko egoera askoz okerragoa denez, ongi ikusten du ekintza horretan parte hartzea. Mesede egin ez arren, kalterik ere ez omen luke ekarriko horrek. Bolizko dorrean bizi ez garela erakutsiko omen luke horrek.

Davant jauna ere ez da ados Charrittonekin. Aurkezten den ekitaldia ez doa inoren kontra. Euskararen ofizialtasunaren aldeko ekintza bat da eta Euskaltzaindiak honen alde egon behar luke.

J. San Martinek dio politika guztien gaineratik egon behar duela Euskaltzaindiak. Iraizotzen esan zuela gorago jotzea komeni zela, Europako parlamentura, esaterako. Frantzia da hizkuntzen kartari betoa jarri diona. Guk badukegu, katalanekin batera, zer esana eta, horrenbestez hori mugitu egin behar dela uste du.

Satrustegik galdetzen du ea baden arrazoi berezirik erakundeak izena alda dezan. Haritschelhar jaunak erantzuten dio ez duela izenik aldatu. Oraingo honetan manifestaldi batez ari garela.

Eztabaida nolabait mozteko edo, bozketa egitea aipatzen da. Charrittonek dio Euskaltzaindiak bere egitekoa betetzen ez duenez, abstenitu egingo dela arazo honetaz.

B. Oihartzabalek dio Euskaltzaindiak Deiadar-en sorreran parte hartu zuela. Baina orain berak nahiago lukeela Euskaltzaindiak atxikimendu idatzi bat egingo balu, baina aurkeztu den dokumentuaren edukiarekin sartu gabe.

Satruestegi jaunaren ustetan Euskaltzaindia garai batean gailurra zen, baina gaur euskara kontuetan protagonismoa galdu duela, atzera gelditzen ari dela. Eta atzera berriz lehengo borroketara ez ote genukeen itzuli beharko galdegiten du, Nafarroan, adibidez.

Euskaltzainburuak gogoratzen du eskuartearen dugun dokumentuak jadanik Jagon sailaren oniritzia jaso duela. Beraz, erabakia hor dugula. Dena den, atxikimendu idatzi bat presta dezan eskatzen zaio Oihartzabal jaunari. Gero testu hau irakurri da eta aho batez onartu (ikus eranskina).

#### 4.2. Aizkibelen omenezko ekitaldiak antolatzeko batzordea

F. Aizkibelen jaiotzaren bigarren mendeurrena dela eta Azkoitiko Udalak antolatu nahi dituen ekitaldiak bultzatzeko batzorde bat eratu da. Euskaltzaindia ere deitua izan da. Gure erakundearen ordezkari gisa Lekuona eta Lizundia jaunak joango dira batzordearen bilkuretara.

#### *Azken bilerako Agiriak onartzea*

Inork ez du oharririk ekarri eta, horrenbestez, bere horretan onartu dira azken bileretako agiriak.

#### 1. Hizkuntza arauak

##### 1.1.1. Exonomastika: Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak zerrenda

-On / -onte bukaerak direla eta, nazioarteko formari lehenetsuna ematearen aldeko da batzordea. Horrenbestez, Belerofon, Laomedon, Karon, Laokoon etab. izango lirateke nagusi, nahiz eta, oinohar gisa, -onte bukaera dutenak ere onartzen diren bigarren mailan. Hala onartu da.

Eztabaidan dagoen bigarren hitza *Martitz / Marte* delakoa da. Exonomastika batzordea lehenbizikoaren aldekoa bada ere, Euskara Batukoaren proposamena kasu honetan *Marte* da. Literatura tradizioak *Marte*-ren alde bultzatzen omen du. Eztabaida piztu da. X. Kintana jaunak dio hitza gutxi erabili dela baina azken urteetako joera *Martitz*-en aldekoa dela. Iparraldean, berriz, *Mars*. *Martitz* hitza euskal ondarekoa dela eta beraz dela forna egokiena. Azkenean botoetara jo da. Honako hau izan da emaitza: Euskara Batuko batzordearen proposamenaren alde (*Marte* formaren alde, alegia), 10 boto; kontra, 5; zuri, 4. Beraz, *Marte* forma onartu da.

Hiztegi kontuetan sartu aurretik, exonomastikari dagokion zuzenketa bat ekarri da mahai gainera. Munduko estatu izenak onartzerakoan *Sao Tome eta Printze* onartu zuen Euskaltzaindiak, baina uharteen izenetan, *Sao Tome* onartu zen alde batetik, baina *Principe* bere horretan utzi zen. Hau zuzendu beharra da. Kontuan izanik izen hedatuena *Principe* dela, estatuaren izena *Sao Tome eta Principe* izatea proposatzen da eta zerrenda dagokion eran zuzentzea. Hala onartu da.

##### 1.2.1. Hiztegi Batuko koartel - kontsultatu zerrenda onartzea

Zerrenda honen eztabaida aurreko bileratik dator. H. Knörren oharrak hartu dira mintzagai.

*Koi* hitza bigarren itzulirako uztea proposatzen du batzordeak. *Koilara*-rekin batera *koilaraxka* ere sartzea eskatzen du ohargileak. Ez da onartzen, “koilara txiki” hobe delakoan. *Cognac* forma sartzea ez da onartu. Eztabaidaren ondoren, dena den, *koñak* sarrera bera ere zerrendatik kentzea onartu da, bigarren itzulirako utziz.

*Koinata* / *koinatu*-ren ondoan “=ezkonarreba, ezkonahizpa, ezkonanaia” eranstea onartu da.

*Kojo* sarrera aldatzea ez da onartu. *Kokin*, ohargilearen iritziaren kontra, ez omen da lagunarteko forma. Beraz, ez da zerrenda aldatuko. *Kokolo* hitzari *Bizk.* erantsiko zaio. Knörren ustez, *komekatu* hitza ez da *Naf.* Batzordeak ez du hala uste. Beraz, ez da aldaketa onartzen. Nolanahi ere, “da” aditza dela adieraziko da.

*Komeni*-ren sarrera ez da aldatuko. *Komeria*-ren kasuan ez da beharrezko ikusten adiera jartzea, “arazoa” ere ez baita, ohargileak uste duenaren kontra. *Komulgatu* ere bere horretan uztea proposatzen du batzordeak.

*Komun* sarreran, izen gisa, zer adiera duen argitzeko adibideak ematea bigarren itzulirako uztea hobe dela uste du batzordeak. Bestalde, *komun izan* = *erkide izan* azpisarrera kentzea proposatzen du batzordeak eta hala onartzen euskaltzainek.

*Komunitate* bere horretan utziko da.

*Kondatu* sartzea onartu da. Honela geldituko da sarrera hori: *kondatu\* e. kontatu; kondu\* e. kontu.*

*Kondenatu* dagoen bezala utziko da. *Kondesa* erantsiko da. *Koneju* sartzea ez da beharrezko ikusten. *Konfesatoki* sarrera ez aldatzearen aldeko da batzordea. *Konforme* ere ez da beharrezko ikusten.

*Konjuru* euskara ote den zalantza agertu du ohargileak. Baina hitz hori erabilia izan da bai iparraldean eta bai hegoaldean. Beraz, dagoenetan uztea eskatzen du batzordeak.

*Konkretuki* hitza zerrendatik kentzea onartu da, aski badaezpadako erabilera baitu.

*Konparantza* sartzea onartu da, *Ip.* eta *Naf.* oharrez hornitua.

*Kontent* / *kontentu*: biak dira onartzeokoak. *Kontentu*-ri honako hau erantsiko zaio: “iz. / Heg/ Zah”.

*Kontra* izenondoa bigarren itzulirako utzi da. *Kontrakar* izena dela esatea aski dela deritza batzordeak. Horrenbestez, ez da onartu Knörren oharra. Era berean, *kontrako eztarri* azpisarrera adibide batez osatu beharrik ez da ikusi.

*Kontsigna* hitz eztabaidatu da. Ordain egokirik ez duenez, mantentzea onartu da.

Ondoren Peillen jaunaren oharra aztertu dira.

*Koktel* hitza sartzea onartu da. *Kolonial*-en kasuan ez da esaten pertsonentzako denik. Nolanahi ere, adibidea gehituko da: “administrazio koloniala = kolonia-administrazio”. *Kontagailu* ere gehituko zaio zerrendari, baita *kontsulorde* hitza ere.

Hurrengo itzulirako egokiago ikusi dira honako hauek: *kolaka*, *koltxa*, *komunikaezin*, *komunikagarri*, *kontrabaliu*, *kontraekintza* eta *kontsultategi*.

*Koloretasun* hitza ez da beharrezko ikusten. *Komun* hitzarentzat “elkarrekiko” sinonimoa proposatzen da. Hala ere, asko dira sinonimoak eta ez dira ematen. *Konpongarri* hitzaren berezko esanahia ere eztabaidagarria da eta hobe ikusi da oraingoz ez sartzea.

Azkenik, A. Urrutiaren oharra hartu dira. Honako ohar hauek onartu dira: *Koherentzia*, *kokoteko* (“Heg. markarekin), *kolektibizazio*, *kolorgetu*, *kondentsatu*, *konfederatu* / *konfederazio*, *konfiskatu*, *konkista*, *konklabe*, *konkordatu* (izena.), *konnotazio*, *kontrapas* eta *kontseilaritza*.

Hurrengo itzulirako utzi dira: *kodegile*, *kodizilo*, *kolazio*, *komisionatu*, *konbentzio*, *kondekorazio*, *konferentzia*, *konfesio* (‘confesión religiosa’ adieran), *konfinatu*, *konkurso* / *konkurtsatu*, *konpentsatu* / *konpentsazio* (erabilerak hobeto aztertu ondoren), *konprometitu*, *konspirazio*, *kontingente* / *kontingentzia* eta *kontserbadore*.

Bestalde, *koipatu* sarreran adiera argitzea eskatzen du ohargileak. Eztabaida labor baten ondoren, *koipetu* forma hobetsi da. Adiera bigarren itzulian argituko litzateke.

*Kolonia* hitza “etxe multzo” gisa emateko beharrik ez da ikusten. *Koloniar* hitza ere hobeto aztertzea da. Beraz, ez da oraingoz jasoko.

*Komentatu* hitza batzordeak berak ezabatua du zerrendatik. Beraz, oharra ere ez da kontuan hartu. *Komertzial* hitza ageri da zerrendan. Ohargileak ez du honen beharrik ikusten. Kentzea onartzen da. Bigarren itzulian hobeto aztertuko da.

*Komisio* hitzarentzat ohargileak beste bi adiera dakartza: ‘kontratu mota’ eta ‘delitu egintza’. Ez da ikusten adierok eman beharra. Hala ere, zerrendako informazioa honela aldatzea onartu da: *komisio-1* h. batzorde; *komisio-2* h. betekizun; *komisio-3* ‘kobratzen den saria’.

*Konbit* sarrerari lekuz kanpo dagoen puntua ‘.’ kenduko zaio.

*Kontratu* ageri da zerrendan. Ez da onartu *kontratatu*, *kontratazio*, *kontrata* eta abarrek gehitzea oraingoz.

Ondoren, zerrendan bertan eztabaidarako markatuak zeuden hitzak hartu dira kontuan. *Kolonia* hitzaren bigarren adieran ‘usain gozoko likidoa’ esan beharrean ‘=kolonia ura’ ezarriko da.

*Komisaria* hitzaren ordez, *polizia(-)etxe* hobetsi da. Horrenbestez, honela onartu da dagokion sarrera: *komisaldegi*\* *e.polizia(-)etxe*. Eta *komisaria*, h. *polizia(-)etxe*.

Azken orduko kontuetan, Satrustegik galdegin du Nafarroako elizbarrutien argitalpen batean ageri den “Iruñe-Tutera elizbarrutiak” zuzena ote den. Eztabaida txiki bat izan da baina ez da arrazoï larriegirik ekarri formula hori txartzat emateko, nahiz eta hobe legokeen, behar bada, “Iruñe eta Tuterako elizbarrutiak”.

Miren Azkaratek ahoskera batuaz landutako proposamena banatu die euskaltzainei. Ez omen da azken testua.

Azkenik, batzar aretoan eskegi den koadro berria aurkeztu da: J. M. Lojendio, euskaltzainburu izan zenarena.

## 2. 1997 urteko kontu errendapena.

Zearreta jaunak aurkeztu du dokumentua. Pello Salaburuk eta Beñat Oihartzabalek zenbait argitasun eskatu dituzte. Besterik gabe ontzat eman dira joan den urteko kontuak.

Eta horrenbestez, ordu bi eta erdiak direla amaitutzat eman da goizeko bilkura.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

\* \* \*

## Eranskina:

Miarritzen 1994ko ekainaren 30ean egin zuen adierazpenean ikus daitekeen bezala, Euskaltzaindiak argi eta garbi jakinarazi du jadanik galdatzen duela euskara Iparraldean ere hizkuntza ofizial gisa ezagutua izan dadin, eta gisa horretan zaindua eta lagundua.

Ipar Euskal Herriko kultur elkarteek eskakizun horren alde agertzeko dei berezia egin berria baitute, Euskaltzaindiak gai horretaz lehenago erranak oroitarazten ditu eta bere atxikimendua erakusten euskararen legezko ezagutzaren eta ofizialtasunaren alde dei egiten duten elkarteei.

\* \* \*

## AGERIKO BATZARRA

*Bilbon, 1998ko otsailaren 27an*

Bilbon, Plaza Barriko Euskaltzaindiaren egoitzan, 1998ko otsailaren 27an, arratsaldeko 5etan, hasi da Euskaltzaindiaren batzarra. Honako jaun-andre hauek bildu dira:

J. Haritschelhar, euskaltzainburua, H. Knörr, buruordea, P. Goenaga, idazkaria, J. A. Arana, diruzaina, eta P. Altuna, M. Azkarate, P. Charriton, J. L. Davant, X. Diharce, X. Kintana, F. Krutwig, E. Larre, J. M. Lekuona, B. Oihartzabal, P. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola, J. M. Satrustegi, A. Urrutia, L. Villasante eta A. Zavala euskaltzain osoak.